

## **KONTSULTA PUBLIKOA, DONOSTIAKO UDALBATZAK 2006/01/31N ONETSITAKO OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIORAKO ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENAREN AURREKOA**

Donostiako Udaleko Mugikortasun Zuzendaritzak eguneratu egin nahi du Udalbatzak 2006ko urtarrilaren 31n onetsitako eta 2006ko otsailaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulaziorako Ordenantza, alderdi hauei dagokienez:

- 1.- Zama-lanetarako erresebak kudeatzea.
- 2.- Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen (MPI) zirkulazioa.
- 3.- Bizikleten zirkulazioa oinezkoen lehentasuneko kaleetan.
- 4.- Asteburuetan gauetz aparkatzea erdiguneko hainbat autobus-erreitan.
- 5.- Aparkatzeko erresebatutako guneak, mugikortasun urriko pertsonen erabilera pribatiboko ibilgailuentzat.

*Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa betez, azalpen-memoria hau idatzi da gauzatu nahi den proiektuari buruz.*

### **A) KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK**

- 1.- Zama-lanetarako erresebak kudeatzea.

Egungo hiri-kontsumoa aintzakotzat harturik, garraioen hiri barneko banaketa ezinbesteko zerbitzua da gure hiriek funtziona dezaten. Alabaina, zerbitzu horrek inpaktu garrantzitsua du zirkulazioan. Horregatik, beharrezkoa da funtzionamendu-eredu efizienteak bilatzea, alferrikako bidaiak ahal den neurrian murrizteko.

- 2.- Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen (MPI) zirkulazioa.

Beharrezkotzat jotzen da mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen zirkulazioa arautzea, gidarien beren zein bide publikoko gainerako erabiltzaileen bide-segurtasuna bermatzeko —eta batez ere pertsona kalteberenak babesteko—. Hori horrela, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak zirkulatzeko udal-bideak eta baimendutako espazioak definitu nahi dira, baita haietan zirkulatzeko baldintza orokorrak eta nahitaez bete beharreko segurtasun-neurriak ere.

- 3.- Bizikleten zirkulazioa oinezkoen lehentasuneko kaleetan.

Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulaziorako Ordenantzan jasotako oinezkoentzako lehentasunezko guneen egungo erregulazioa ez dator bat uztailaren 23ko TMA/851/2021 Aginduarekin, zeinaren bidez garatzen baita espazio publiko urbanizatuetera sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzen dokumentu teknikoa.

- 4.- Asteburuetan gauetz aparkatzea erdiguneko hainbat autobus-erreitan.

Gainazalean doan aparkatzeko aukera mugikortasun-politika orokorraren guztiz kontrakoa da, politika horrek aparkatzeagatik ordaintzera jotzen baitu auto pribatua ez erabiltzeko disuasio-neurri gisa. Bestalde, gaueko aisialdirako ibilgailu pribatua erabiltzea sustatzen du gure ustez, eta horrek bide-segurtasuneko arazoak sor ditzake, alkoholaren eraginpean gidatzeagatik.

5.- Aparkatzeko erreserbatutako guneak, mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuentzat.

Eskaera horiei erantzuteko baldintza zorrotzagoak ezarri behar dira, eskaeren kopuruak pixkanaka gora egin baitu eta areagotu egin baitira zailtasunak egungo irisgarritasun-araudiari egokitzen zaizkion kokapenak aurkitzeko.

## **b) ONESTEKO BEHARRA ETA AUKERA.**

1.- Zama-lanetarako erreserbak kudeatzea.

Bai Euskal *Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak*, bai *Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legeak* logistika hobetzeko betebeharra ezartzen diete udalerriei, salgaiak modu jasangarriagoan banatzeko.

2.- Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen (MPI) zirkulazioa.

Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuei dagokien araudiaren azken berrikuspenen ondotik —aldaketa horiek ezartzen ditu, alde batetik, *Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia) aplikatzeko eta garatzeko Zirkulazio Erregelamendu Orokorra onartzen duen azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak* eta, bestetik, *Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak*—, beharrezkoa da zehazkiago jasotzea mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen erabilera. Hori dela eta, ezinbestekoa da orain arteko udal-araudia aldatzea, berrikuspen horietara egokitzeko.

3.- Bizikleten zirkulazioa oinezkoen lehentasuneko kaleetan.

*Espazio publiko urbanizatueta sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzen dokumentu teknikoa garatzen duen uztailaren 23ko TMA/851/2021 Agindua* onetsi ondotik, nahitaezkoa da Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulaziorako Ordenantza egokitzea agindu horrek dioenera.

4.- Asteburuetan gauez aparkatzea erdiguneko hainbat autobus-erreitan.

Zubieta eta San Martin kaleen antolamendu-aldaketak direla eta, lehengo autobus-erreia bidegorri eta egoiliarrentzako aparkaleku bihurtu da, eta, horrenbestez, aurrerantzean ezin da aparkatu autobus-errei horretan. Era berean, Urbieta kaleko eskuineko espaloian —zirkulazioaren noranzkoan—, garraio publikoko geltokiak, hiri-hondakinak biltzeko edukiontzia eta barandak daude, eta, beraz, ezin da han aparkatu, Ordenantzaren 43.11 eta 43.2 artikuluek ezartzen dituzten kasuei jarraikiz. Bestalde, areagotu egin da gaueko garraio publikoaren eskaintza, ibilgailu pribatua baliatu beharrik ez izateko, eta, erabili beharra izanez gero ere, aparkatzeko beharrak inguru horretako lurpeko aparkalekuen bidez daude estalita; beraz, ez da beharrezkoa lurrazalean doan aparkatzeko aukera uztea.

5.- Aparkatzeko erreserbatutako guneak, mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuentzat.

*Espazio publiko urbanizatueta sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzen dokumentu teknikoa garatzen duen uztailaren 23ko TMA/851/2021 Agindua* onetsi ondotik, diseinu-irizpide (neurriak) eta kokapen berriak ezartzen dira mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuetarako, kontuan izanik nabarmen eragiten diotela bide publikoan aparkatzeko dagoen espazioari —eta horrek zailtasun handiak sortzen ditu plaza horietarako kokapen egokiak aurkitzeko—.

## **c) ARAUAREN HELBURUAK.**

1.- Zama-lanetarako erreserbak kudeatzea.

Egin beharreko aldateten helburu nagusia da zama-lanetarako guneak hobeto kudeatzea, bide publikoaren erabilera optimizatzeko eta banatzaileen funtzionamendua efizienteagoa izateko. Zama-lanen digitalizazioak garraiolarien jardueraren benetako premiei buruzko informazioa biltzen du, eta informazio hori baliagarria izan daiteke espazioen plangintza, dimentsionamendua eta erabileraren kontrola administrazioaren ikuspuntutik hobetzeko. Banatzaileen ikuspuntutik, berriz, zama-lanetarako erreserbatutako tokien okupazioa denbora errealean ezagutzeak aukera emango du entregen plangintza egokitzeko.

## 2.- Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen (MPI) zirkulazioa.

Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuei dagokienez, estatuko arau-esparrua osatuko duen tokiko arau bat eduki nahi da, Donostiako mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen zirkulazioa arautzeko, bide-segurtasuna areagotzeko eta garraibide batzuen eta besteen arteko bizikidetzak hobetzeko. Eta, zeharkako ondorio gisa, baita garraibide jasangarrien erabilera sustatzeko ere.

## 3.- Bizikleten zirkulazioa oinezkoen lehentasuneko kaleetan.

Oinezkoen lehentasuneko eremuetan seinaleztatutako egungo bizikleta-ibilbideak erretiratzea, oinezkoen lehentasuneko eremuetan bizikleten zirkulazioa galtzadara eramateko, *Espazio publiko urbanizatueta sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzen dokumentu teknikoa garatzen duen uztailaren 23ko TMA/851/2021 Aginduaren 5. eta 38. artikuluek diotenari jarraikiz.*

## 4.- Asteburuetan gauez aparkatzea erdiguneko hainbat autobus-erreitan.

Bide-segurtasuna areagotzea, ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea eta garraibide jasangarrien erabilera sustatzea.

## 5.- Aparkatzeko erreserbatutako guneak, mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuentzat.

Mugikortasun urriko pertsonentzako erabilera pribatiboko aparkalekuen erabilera arrazionalizatzea, eta plaza horiek emateko baldintzak aldatzea.

### **d) HAUTABIDE ARAUTZAILEAK ETA EZ-ARAUTZAILEAK.**

Gaur egun ere jasota daude Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulaziorako Ordenantzan zama-lanetarako erreserbatutako plazak erregulatzea (1), oinezkoen lehentasuneko kaleak erregulatzea (3), autobus-erreian gauez aparkatzeko erregulazioa (4) eta mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuak aparkatzeko plaza-erreserben erregulazioa (5), guztiak ere ibilgailuen mugikortasuna eta aparkatzea arautzeko udal-eskumenean oinarrituta (hala xedatzen baitute *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17. artikulua* eta *Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 7. artikulua*). Hori horrela den heinean, beharrezkotzat jotzen da testu horretan aldatzea.

Bestalde, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen zirkulazioari dagokionez (2), goragoko araurik ez dagoenez, Tokiko Gobernu Batzarraren 2018ko abenduaren 26ko ebazpen bidez dago araututa ibilgailu horien zirkulazioa, Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulaziorako Ordenantzaren bigarren xedapen gehigarrian oinarrituta. Bidezkotzat jotzen da Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulaziorako Ordenantzan beste erregulazio bat jasotzea, estatuan onetsitako araudiarekin bat etortzeko.